

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuak 2019ko Elkartasunaren Nafarroa Nazioarteko Sariaren XVII. Edizioa iragarri du

*Hautagaitzak aurkezteko epea bihar hasi eta maiatzaren 17ra arte luzatuko da*

Astelehena, 2019.eko martxoak 25

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako Departamentuak, Laboral Kutxaren [lankidetzarekin](#), 25.000 eurokoa den, 2019ko Elkartasunaren Nafarroa Nazioarteko Sariaren XVII. edizioa [iragarri](#) du. Hautagaitzak aurkezteko epea bihar hasi eta maiatzaren 17ra arte irekita egonen da.

Sari honen xedea da, pobrezia, desberdintasuna, bidegabekeria eta aldaketa klimatikoarekin amaitzeko, Nazio Batuen Agendak hemendik 2030 urtera bitarte markatutako Garapen Iraunkorreko Helburuak lortzeko egindako lanarengatik edo izandako ibilbidearengatik nabarmendu diren pertsonak, GKEak edo erakundeak saritzea. Golardo hau, saritutako pertsona edo saritutako entitatearen arduradunak jasoko du, eginen den ekitaldi publiko batean.

### Hautagaitzen aurkezpena

Aurreko edizioetan bezala, edozein herrialdetan legez eraturako honako hauek hautagaitzak aurkez ditzakete: erakunde publikoek (gobernuak, ministerioak, udalak, unibertitateak, akademiak, ikerketazentroak, enbaxadak, kontsulatuak, eta abar), hezkuntza-erakundeek, entitate kulturalak, sozialek, gobernuz kanpoko erakundeek, eta gehiago. Halaber, izena eman dezakete, adierazitako apearen barruan, epaimahaiko kideek eta antolakuntzak gonbidatutako pertsona ospetsuek edo erakundeetako ordezkariak. Norberarentzako edo legez ordezkatzeko erakundearentzat saria eskatzen dutenek aurkeztutako hautagaiak ez dira onartuko.

Aipaturako entitateek edo pertsonak hautagaia ondorengo dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dute: proposaturako pertsona edo erakundearen datuak; azalpen memoria zeinetan frogatuko baitira saria eskuratzeko egindako merezimenduak, hala nola, ekintzak, saiok, neurriak eta egokitzat jotzen den gainerako informazioa; alegatzen diren merezimenduak abalatu eta egiaztatzen dituen beste edozein dokumentazio osagarri, eta hautagaien alde emandako gutunak.

Hautagaiak Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusira igorriko dira (González Tablas, 7 kalea), posta ziurtatuaren bidez, gutun-azalean adierazita Elkartasunaren Nafarroa Nazioarteko Sarirako dela. Mezularitza zerbitzua erabiltzen bada hautagaitza igortzeko, jakinarazi beharko da; eta proposamenak, aldiz, posta elektronikoaren bidez aurkezteko, [servcoopdes@navarra.es](mailto:servcoopdes@navarra.es) helbidera bidaliko dira.

Epaimahaia zazpi kidek osatuko dute, deialdia egin duten erakundeen ordezkariak barne, eta kide horiek ospe handiko pertsonen eta profesionalen artean hautatuko dira, elkartasun-munduarekiko sentsibilitate berezia eta esanguratsua dutenen artean. Erabakia prentsaurreko batean jakinaraziko zaie hedabideei, aditzera ematen zein entitatek edo pertsonak irabazi duen saria, edo, kasua bada, eman gabe gelditu dela esanez.

### **Aurreko edizioetako saridunak**

[Aurreko edizioetan](#), profil oso anitzeko hainbat kontinentetako honako erakundeek eta pertsona ospetsuek saria jaso zuten: Bakearen Nobel Saria, Muhamad Yunusek; Kalkutako Karitateko Ahizpa Misiolariak; Errefuxiatuentzako Jesuita Zerbitzuak; Uganda Network of Aids Service Organizations-ek (UNASO); Fedearen eta Alaitasunaren Nazioarteko Federazioak; San Juan de Dios Ospitale Ordenak; Wassu Gambia Kafok eta Mama Samathek; Aguaricoko Bikarriotza Apostolika-Ekuadorreko Misio Kaputxinoak; Isabel Martínek-Creative Handicraft; Manuel E. Patarroyo Murillo irakasleak; Keniako Dimina Khasialak, "Mama Tunza" bezala ezaguna; Marta Pelloni Ahizpak, Argentinan Giza Eskubideen alde lan egiten duenak; Juan Ciudad Fundazioak eta langileetarikoa batek, Paciencia Melgar Ahizpak, ahaztutako gaixotasuna duten pertsonekin egindako lanarengatik, tartean Ebola. Gainera, beste hauek ere saridun suertatu ziren, esaterako, Georges Sabé, Anaia Marista Urdina, Siriako gudan kaltetutako herritarrei laguntza emateko Marista Urdinek egindako lana aitzatesteke; Via Campesina erakundea, nekazarien interesak defendatzen dituen, eta nekazaritza ekologikoa zein elikagaien subiranotasuna bultzatzen dituen munduko giza-mugimendua, eta azken edizioan, lau aktibista afrikarrak ((Theresa Kachindamoto, Hulo Guillabert, Victoria Nyanjura eta Oumou